



Esp.kodea: 2024PHEL0001

Gaia: Basolan II Taldeburua

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA / IRAUPENA
Taldeburua	BASOLAN II, enplegu-formakuntza programa Arrasateko udalerriko natura guneen mantenuan aritzeko.	4-5 hilabete, %75 jardunean (2024ko irailaren 30ra arte)

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaien baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Eskolako Graduatua, LH 1 edo baliokidea izatea edo hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea
1. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea
- Baso eta natur espazioen mantenu arloan gutxienez 10 hilabeteko lan esperientzia, edo formazioa (gutxienez lanbide heziketako lehen mailako ziurtagiri profesionala baso eta natur espazioen arlo profesionaleko espezialitatearen baten)
- B gida baimena
- Baso eta natur espazioen mantenu lanetan aritzeko osasun edo bestelako eragozpenik ez edukitzea

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, aurreko puntuan ezarritako baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIAREN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaiaren aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaien egiaztatutako merituen baloratuaz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkari batzordearen proposatuta.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.



Esp.kodea: 2024PHEL0001

Gaia: Basolan II Taldeburua

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, hautagaien zerrenda, hautaketa frogen informazioa eta abar) udaleko web orrian argitaratuko dira (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko dira BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

Interesa adieraziko duten hautagaiek behean azaltzen diren probak egin beharko dituzte, eta merituen balorazioa egingo zaie, honela:

- **Merituak: (20 puntu)**
 - Euskara: 2. HE egiaztatzea (agiriz, ez da probarik egingo): 10 puntu
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
- **Probak: (80 puntu)**
 - *Teoriko-praktikoa:* Baso mantenu arloari buruzko proba teoriko-praktikoa. 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* motibazioa, parte hartzeko prestutasuna eta aukeraren beharra neurtzeko elkarrizketa egingo da. 0-30 puntura baloratuko da eta gutxienez 15 puntu atera beharko dira aurrera egiteko.